

BATERAEZINTASUNAK

ETXEBIZITZA LIBREA ALOKATZEKO LAGUNTZAK, COVID-19 BIRUSAK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDORIOZ SORTUTAKO EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALEI AURRE EGITEKO.

Laguntza hauek bateraezinak dira honako hauekin:

1.	Alokairuko babes publikoko etxebizitza bat edo erabilera-lagapeneko zuzkidura-bizitoki bat izatea.
2.	Alokairuko etxebizitza pribatu bat edukitzea ASAP (Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko bitartekaritza-programaren edo Bizigune etxebizitza hutsen programaren bidez.
3.	Etxebizitzako prestazio osagarria (EPO) eta etxebizitzako prestazio ekonomikoa (epe) jasotzea, alokairu-gastuak estaltzen laguntzen duten udalen edo beste edozein administrazio edo erakunde publikoren laguntzak.
4.	Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua 2.a atalean aipatutako alokairu-gastuekin lotutako gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jasotzea.
5.	Gaztelagun programako alokairurako laguntzak jasotzea. Programa hori Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduaren bidez arautu zen.
6.	Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 31ko Aginduak araututako alokairuak ordaintzetik salbuestea. Agindu horren bidez, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan Covid-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak arautzen dira.
7.	Etxebizitzaren errenta osorik edo zati batean barkatzea edo errentatzailearekin adostuta ordainketa aldi baterako eta ohiz kanpo geroratzea, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19 birusari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituena).
8.	Errentamendu-errenta % 50 murriztea alarma-egoerak irauten duen bitartean, eta hurrengo hilekoak, epe hori nahikoa ez bada COVID-19 birusak eragindako kalteberatasun-egoerari dagokionez. Nolanahi ere, gehieneko muga lau hilabetekoa izango da, edukitzaile handien eta etxebizitzako enpresa edo erakunde publikoen kasuan errentamendu-zorren luzamendua automatikoki aplikatzeari buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.
9.	Beste edozein administrazio publikok edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako emandako bestelako laguntzak., 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua baitan emandako maileguak izan ezik

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko apirilaren 30eko Aginduaren babesean jasotako laguntzak bateragarriak dira ondorio horietarako (arau horrek Covid-19 birusak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten du).